

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako segurtasuneko eta larrialdietako langileek istripu-simulakro batean parte hartu dute Pirinioetako autobiko Ledeko tunelean

Jarduera hori Foru Komunitateko Bide Sareko Tuneletarako Larrialdi Planean (PETNA) barne hartzen da

Osteguna, 2017.eko azaroak 16

Nafarroako segurtasuneko eta larrialdietako langile batzuek istripu-simulakro batean eta geroagoko sutean parte hartu dute gaur goizean Pirinioetako A-21 autobiko Ledeko tunelean. Jarduera hau Nafarroako Gobernuaren Babes Zibileko Zerbitzuak koordinatu du eta bere helburua da Nafarroako Errepide Sareko Tuneletarako Larrialdi Planaren (PETNA) eraginkortasuna egiaztatzea.



Suhiltzaileak istripua izandako ibilgailuak mugitzen

Simulakroan bi ibilgailuk talka egin dute Ledeko tunelean eta zenbait zauritu egon dira. Istripuaren ondorioz sute txiki bat gertatu da eta une horretako tuneletik igarotzen ziren zenbait ibilgailu harrapatuta geratu dira, horien artean Zangozako DBIko ikasleak zeramatzan eskola-autobus bat. Istripua 3. mailakotzat hartu dute, larritasunik handiena duena beraz, eta hara 2 oinarritzko bizi-euskarriko 2 anbulantzia joan dira, anbulantzia eta helikoptero medikalizatu bat, Zangozako suhiltzaileak eta Cordovillako parkeko laguntza-unitateak, Foruzaintzako patruilak eta Guardia Zibilekoak, DYAKo eta Gurutze Gorriko boluntarioak, Pirinioetako Autobien kontzesionarioaren langileak, obra publikoen kontserbazio-teknikoak, Errepideak Kontserbatzeko Kontrol Zentroko, SOS Navarrako eta Zangozako lehen mailako arretako ordezkariak. Simulakroa talde eragile horiek mota horretako gertaeretan eskatutako eraginkortasun maila egiaztatzeko jartzen dituzten jardueretako bat da.

Aurretik aipatutako pertsoez gain, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan urriaren 9tik azaroaren 28ra bitartean garatzen ari den "Suhiltzaile-kabura igotzeko ikastaroko (2017)" 18 ikaslek ere parte hartu dute. Jarduera ikastaroko programaren "Zuzendaritza, agintea eta larrialdien kontrola" moduluan jasotzen den azpiegitura berezien barruan egin da.

Gaur goizean Ledean egindako simulakroa Nafarroako Tuneletarako

Larrialdi Plana (PETNA) egiaztatzeko estrategian barne hartzen da. 2004/54/EE zuzentarauak ezartzen du 500 metro baino gehiagoko luzera duten tunelek larrialdi-egoeren aurrean erantzuteko planak izan behar dituztela. Nafarroak antzeko arau autonomikorik ez duen arren, Nafarroako Gobernuak Zuzentarau horretan ezarritako gutxieneko segurtasun-baldintzak jasotzen dituen plan bat du.

Ledean egindako simulakroaz gain, lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak joan den asteartean, azaroak 14, larrialdietako eta segurtasuneko jardunaldi bat egin zuen Nafarroako Errepide Sareko Tuneletako Larrialdi Planaren (PETNA) zirriborroa, talde eragileen aurrean aurkezteko.

Tunel baten barruan sor daitezkeen larrialdiak 0 eta 3 arteko eskala baten barruan katalogatzen dira, larritasun txikienetik handienara. 0 mailako istripuen barruan sartzen dira bide-azpiegituraren erabilera arruntean gertatzen diren gorabeherak, hala nola ur iragazteak, gorabehera meteorologikoak edo oztopoak baztergunean. 1. mailan sartzen dira poliziak bakarrik esku-hartzea eskatzen duten gorabeherak, hala nola trafikoaren erregulazioa behar duten gorabeherak. 2. mailako larrialdien barruan daude poliziaren esku-hartzeaz gain bestelakoen parte-hartzea ere eskatzen dutenak, hala nola larrialdietakoak (osasun-arreta, erreskatea, salbamendua, laguntza logistikoa eta abar). Azkenik, 3. mailako larrialdi-egoera batean, larritasunik handienetakoa dena, salbuesenezko baliabideek esku hartzen dute.



Zauritua helikopteroan eramaten.

Nafarroan guztira 36 tunel daude, eta horietatik 500 metro baino gehiagoko sei baino ez daude. Lau, Belate, Almandotz, Sunbilla eta Oieregi, N-121-An, eta beste biak, Ledea eta Esa, A-21n. 2004/54/EE zuzentarauari jarraituz, hauek dira larrialdi egoeren aurrean erantzuteko planak izan behar dituzten tunelak, baina Nafarroako Gobernuak PETNA aplikatzen du Nafarroako bide-sareko tunel guztietan, hauetan guztietan segurtasuna bermatzeko.

Tunel batetik dabilen zirkulazioak ekartzen duen arriskua luzerarekin eta handik ibiltzen diren ibilgailu kopuruarekin lotuta dago. Alderdi horri jarraituz, Nafarroan, Belate, Almandotz eta el Perdón tunela dira larrialdi-arriskurik handiena dutenak.

Portaera istripu baten aurrean

Zenbait jarraibideri jarraitu behar zaio tunel baten barruan istripu bat gertatzen bada. Lehen urrats gisa larrialdi argiak piztea eta motorra gelditzea da. Ibilgailutik atera aurretik txaleko islatzailea jarri behar da eta horren ondoren laguntza eskatu, SOS tokiak erabiliz edo 112 telefonora deituz.

Ibilgailuan bertan sute bat gertatzen bada, komeni da ibilgailua tunelaren irteeraraino gidatzea, ahal bada. Ezin bada mugitu, utzi ahal beste eskuinenera, zirkulazioaren noranzkoan. Horren ondoren gelditu motorra, utzi giltza jarrita, atera ibilgailutik eta jakinarazi errepideen zerbitzuari SOS tokiak erabiliz edo 112 telefonora deituz.

Galería de fotos



ke ugari istripuaren ondorioz

Tunelera iritsi aurretik dagoen
panelean istripuaren berri eman da

Zauritutako gidarietako baten
erreskate lanak